



**Arartekoaren 2015R-1520-14 Ebazpena, 2015eko abuztuaren 14koa. Horren bidez, Ogasun eta Finantza Sailari gomendatzen zaio KZguneko erabiltzaile bati ezarritako zigorra indarrrik gabe uzteko.**

### Aurrekariak

1. (...) jaunak, Vitoria-Gasteizko Iparraldeko Gizarte Etxeko KZguneko erabiltzaileak, kexa bat aurkeztu zuen erakunde honetan, ez baitzeturren bat zerbitzua eskuratzeko aldi baterako etenaldirako ezarritako zigorrarekin; haren ustetan, neurri hori ez zen batere bidezkoa eta, gainera, jasotako jakinarazpenean zehaztutako gertakariak ez ziren egiazkoak.

Pertsona horrek azaltzen du aurreko 2014ko martxoaren 18an erreklamazio bat aurkeztu zuela gizarte etxean, zerbitzua zuzentzen duten monitoreen jarreragatik, eta ez zuela inolako erantzunik jaso.

Horren ordez, KZguneko kudeaketa zentroaren jakinarazpen bat jaso zuen, 2014ko martxoaren 20koa; jakinarazpen horren bidez zerbitzua eskuratzeko aldi baterako etenaldia ezarri zitzaion hilabeteko epean, KZguneen erabilera arauak ez betetzeagatik. Egotzitako urraketak honakoak izan ziren: inprimatzeko orrien muga errespetatu ez izana, sarrera orrian izena eman nahi ez izatea eta dinamizatzaileekiko begirunerik ez izatea jarraitu beharreko arauak zehazten zizkiotenean.

Bestalde, zerbitzua eskuratzeko aldi baterako etenaldia 2014ko martxoaren 18tik aurrerakoa zen, hau da, idatzia jaso baino bi egun lehenagokoa; halaber, ohartarazten zitzaion arautegia berriro ere bete ezik kontuan hartuko zela zerbitzua eskuratzeko behin betiko etenaldiaren aukera.

2. Kexa ikusita, informazioa eta argibideak eskatu genizkion Eusko Jaurlaritzaren Ogasun eta Finantza Sailari, zerbitzua zuzentzen duten barne arauen berri emateko, jarduketa mota hauetan jarraitzen den prozedura jakinarazteko eta pertsona horrek KZgunean aurkeztutako erreklamazioari buruzko izapidetak ezagutzeko.

Lehenengo erantzunean, KZguneko proiektuaren arduradunak gertaeren berri eman zigun eta jarraitutako izapideen egiaztagiriak igorri zizkigun.

3. Behin jasotako dokumentazioa eta erantzuna aztertu ondoren, sailari gure gogoeten berri eman genion; izan ere, gure ustetan, beharrezkoa zen manuzko zigor espedientea izapidetzea arautegiaren arabera eta funtsezko izapidetak betetzea, zigor bat ezarri ahal izateko. Zerbitzura sartzeko aldi baterako etenaldia *de facto* bete zen arren, zigor hori indarrrik gabe geratu beharko zen alde formalean, ukitutako pertsonarentzat ez baita berdina urraketaren pilaketaren eragina, balizko zigor bat ezarriz gero. Hori guztia ez da





oztopo izango espedientea zuzen izapidetzeko, baldin eta haren tramitazioa bidezkoa bada momentu horretan.

Bestalde, Sailari zenbait ohartarazpen egin genizkion zerbitzua zuzentzen duten arauen alderdi batzuen gainean. Zerbitzuak finkatutako prozedura barne izapideei dagokie, behin zigorra ezarri ondoren, baina ez da zerbitzuaren erabiltzaileentzat beharrezko prozedura bermeeekin jarraitzeko moduko zigor prozedurari buruzko erregulazioa.

Zentzu horretan, gehitu genuen ez zela posible erreklamaziogileari egotzitako urraketa kalifikatzea, ez baitzen halakorik zehazten jasotako jakinarazpenean eta ez baita argigarria hori zehaztea hutsegiteei eta zigorrekin buruzko arautegia irakurriz. Gauzak horrela, egindako zigorraren kalifikazio faltak galarazten du, esate baterako, zehaztea ea egindako urraketak preskribitu duen ala ez, hutsegite arinek sei hilabeteren buruan preskribatzen dutelako (hilabeteko kaleratzea eragiten duten hutsegi arinak).

Amaitzeko, gure jakinarazpenean adierazi genuen jakitun gaudela jardunbide arauak ez betetzeak zerbitzuaren ohiko kudeaketari ekar diezazkiokeen arazoaren gainean, baina legezketasuna ezinbestean bete behar dela eta areago zigor arloari dagokionez. Ondorio horiei begira, gaur egungo arauak berrikusteko komenigarritasuna iradokitzen zen, zerbitzuaren erregulazio zabal eta egokiagoa erdiesteko, horren barnean zigor arloa, zerbitzuaren ordenantza edo arautegi gisa; horretarako, beharrezko publizitatea eman beharko litzaiokie KZguneko erabiltzaile guztiek horren berri izateko.

Hala, eskatu genuen azaldutako gogoetak kontuan hartzeko prestutasunari buruz edo desadostasun arrazoituaren iritzia buruz informa gintzatela, bai eta hartuko ziren neurri zehatzei buruz ere.

4. Azkenik, jakinarazpen honi erantzuna emateko eta zerbitzuaren arduradunekin bilera bat izan ondoren, Eusko Jaurlaritzaren Sozietate Informatikoak prestatutako zigor prozeduraren zirriborroa jaso dugu; hala eta guztiz ere, ez dugu erantzunik jaso zerbitzuak ezarritako zigorra indarrik gabe uzte aldera helarazitako gogoetak kontuan hartzeko prestutasunaren inguruan.

### Gogoetak

1. Eusko Jaurlaritzaren 2001eko apirilaren 10eko Kontseiluaren erabakiz abian jarritako "Konekta Zaituz Ciudadan@" programaren xedea da Internetarako sarbide zentroak hornitzea Euskadiko udalerrietan autoprestakuntzarako eta jendaurreko prestakuntzarako programak garatzeko asmoz. Programa Ogasun eta Herri Administrazio Sailari egokitzen zaio (gaur egun Ogasun eta Finantza Saila), EJI Erekiko (Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarte) lankidetzaren hitzarmen baten bidez; hitzarmen hori dela bide, sozietate horri dagokio udalekin zentroak koordinatzeko eta zerbitzuak emateko beharrezko





akordioak lortzea. Funtsean, zentroyen zuzendaritza eta giza baliabideen eta bitarteko teknologiko eta didaktikoen zuzkidura EJI Eri dagokio; aitzitik, udalek zentroak kokatzeko lokalak jarri behar dituzte eta mantentze lanak egin.

Horrenbestez, Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrietan kokatutako KZguneetan ematen diren zerbitzuen kudeaketaren eta zuzendaritzaren eskumena EJI Erena da.

Testuinguru honetan, erreklamaziogileak, KZguneeko erabiltzaile gisa, inskripzio orri bat bete zuen eta zerbitzua erabiltzeko arauak onartu zituen. Sailak emandako erabilera arauak honako hau ezartzen dute gai honi dagozkion ondorioei begira:

*“Los tutores de centro tienen la facultad para modificar y establecer nuevas normas, así como para sancionar a los usuarios que adopten actitudes y comportamientos que se consideren inapropiadas con el espíritu del centro. Aquellas personas que no acaten la autoridad de los tutores podrán, siguiendo los procedimientos legales establecidos, ser sancionadas de acuerdo a la legislación vigente.”*

Erregulazio zehatzik ez dagoenez gero, prozedura orokorra Euskal Autonomia Erkidegoaren Herri Administrazioen zigor ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legeak (ZAL) ezarritakoa da; lege hori aplikagarri zaie Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde eremuan zigor ahalmena egikaritzen duten erakunde guztiei, eta erakunde komunek araugintzako eskumena duten arloetan, eskumen hori erabatekoa izan edo Estatuarekin edo lurralde historikoetako organoekin banatutakoa izan).

ZALen 2. artikuluekin bat etorritz, zigor ahalmena egikarituko da Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen IX. Tituluaren I. kapituluaren ezarritako printzipio eta abiaburuei men eginez (127. artikulua eta hurrengoak). Horrela, zigortzeko ahalmena erabili ahal izateko, ahalmen hori legearen maila duen arau batek berariaz onartu behar du. Era berean, ZALen 4. artikulua ezartzen du dagozkien sektore-legeek arau-haustek tipifikatu behar dituztela.

ZALek zigor prozedura arautzen du 34. artikuluan eta hurrengoetan; horretarako, manuzko espedientea izapidetu behar da ezinbestean eta, horren barnean, honako tramite hauek:

- Hasiera emateko erabakia (36. artikulua ezarritako edukia jasoz), hau da, prozedurari hasiera ematea arrazoitzen duten gertakariak, haien kalifikazio juridikoa eta ezar daitezkeen zigorrak, bai eta prozeduraren izapidegilearen izendapena (hura ezesteko araubidea beren beregi adieraziz) eta prozeduraren gainean ebazteko organo eskuduna ere.





- Interesdunari entzunaldia ematea, alegazioak aurkezteko eta epe frogagarria irekitzea eskatzeko.
  - Hala badagokio, frogaren gauzatzea eta ebazpen proposamena, interesdunari beste entzunaldi bat emanez.
  - Ebazpen arrazoitua, interesdunek azaldutako gai guztien inguruan eta prozedurak sorrarazitakoen inguruan erabakiko duena.
2. Kasu honetan, interesdunak KZguneko kudeaketa zentroaren jakinarazpen bat jaso zuen, 2014ko martxoaren 20koa; jakinarazpen horren bidez zerbitzua eskuratzeko aldi baterako etenaldia ezarri zitzaion hilabeteko epean, KZguneen erabilera arauak ez betetzeagatik. Zehatzago, jasotako jakinarazpenak honako ez-betetze hauek egozten dizkio erreklamaziogileari:
- Inprimatzeko orrien muga errespetatu ez izana.
  - Sarrera orrian izena eman nahi ez izatea.
  - Dinamizatzaileekin begirune falta izatea jarraitu beharreko arauak adierazten zizkiotenean.

Jasotako jakinarazpenak adierazten du zerbitzua eskuratzeko aldi baterako etenaldia 2014ko martxoaren 18tik aurrera zenbatuko zela, hau da, idatzia jaso baino bi egun lehenago; halaber, ohartarazten zitzaion arautegia berriro ere bete ezik kontuan hartuko zela zerbitzua eskuratzeko behin betiko etenaldiaren aukera.

Horretatik ondorioztatzen da kasu honetan ez dela inolako zigor espedienterik izapidetu legeriak exijitutako edukiarekin eta tramiteekin; izan ere, ukitutakoak alegazioak aurkezteko eta frogabideak proposatzeko eskubidea izan behar du defendatu ahal izateko, zigortua izan baino lehenago. Laburbilduz, zigorra egitatezko bidea baliatuz ezarri da, zigorrak finkatzeko lege ezarritako prozedura oso-osorik bazter utzita.

Horrek berekin dakar ezarritako zigorra indarrrik gabe utzi beharra alde formalean, kexa aurkeztu zuen pertsonak bete baitzuen zerbitzua hilabetean eskuratzeko aldi baterako etenaldia. Ondorio horietarako, ukitutako pertsonarentzat ez da berdina zigorra indarrrik gabe geratzea edo, baieztatuz gero, legezko bermeen bitartez izatea; izan ere, urraketan pilaketak ondorio desberdinak eragin ditzake egoera zehatz batean ezarri beharreko zigorra kalifikatzeko orduan.

Kasu honetan, erreklamaziogileak izandako urraketak preskribaturik ez badaude, beharrezko zigor espedientea izapidetu behar izango da, aurreko gogoetan adierazitakoarekin bat etorritz.

3. Zerbitzuaren erabiltzaileek aipatzen dituzten urraketek aplikatu beharreko zigor prozeduraz denaz bezainbatean, erakunde honek kasu honi buruz egindako iradokizuna kontuan hartuz, EJIEk prestatutako zigor prozeduraren zirriborroa





bidali du, egin-eginean ere Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zigor ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legearen tramitazioari egokitzeko prozeduraren zirriborroa.

Legezkotasunari egokitzeko egindako ahalegina nabarmendu behar dugu; hala eta guztiz ere, legezkotasunaren printzipioa betez, KZguneei euskarri ematen dieten zerbitzu juridikoek behar bezala egiaztatu eta baliozkotu behar dituzte zigortzeko ahalmena gauzatzea bera eta prozedura.

Hori guztia dela eta, erakunde hau sortzeko eta arautzeko otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 11 b) artikulua ezarritakoarekin bat etorriz, honako hau gomendatzen da:

#### GOMENDIOA

1. (...) jaunari, Vitoria-Gasteizko Iparraldeko Gizarte Etxeko KZgunearen erabiltzaileari, zerbitzua hilabetean eskuratzeko ezarritako aldi baterako etenaldiaren zigorra indarrik gabe uztea.
2. Egindako urraketak preskribaturik egon ezean, beharrezko zigor espedientea izapidetzea modu egokian.

